



**ORTZAIZEKO
HERRIKO
ETXEA**
—
MAIRIE
D'OSSÈS

2021-EKO LARRAZKENEKO HIRUHILABETEKARIA

BULLETIN TRIMESTRIEL DE
L'AUTOMNE 2021

MURGILTZEA ESKOLA PUBLIKOAN / IMMERSION À L'ÉCOLE PUBLIQUE

Ortzaize eta Arrosako buraso eta hautetsiek sustaturik, 2021 urte hastapenean abiatu da eskola publikoko ama eskolarentzat murgiltze galdearen proiektua. Hunen helburua euskara ikasteko haurren aitzinatzeak errextea eta indartzea da. Erakaskuntza mota hunek hegalak baizik ez ditu emaiten haurrari gure lurraldean ofizio baten atxemaiteko, lan mota frangotan azkarki preziatua baita euskararen jakitea. Galdeketa baten ondotik, burasoen gehiengo handi bat esperimazio horren alde agertu da, ama-eskolako burasoen %94,5a hala zelarik. Ondotik, buraso eta hautetsiek eskuz-esku lan egin dute, Biga bai eta Ikas bi elkarteak, Euskal Erakunde Publikoa, bainan ere kasu berean ziren herrietako eskolak lagun, Akademiak beren galdea onartu arte. Buruileko sartzetik hunat, Eskola publikoak euskara murgiltze eredia eskaintzen die ama-eskolako haurer.

Initié par une volonté commune des parents et des élus de Saint Martin d'Arrossa et d'Ossès, le projet de demande d'immersion 100% en langue basque de la classe maternelle de l'Ecole Publique a démarré début 2021 afin de faciliter et de renforcer la progression des enfants dans l'apprentissage de la langue basque. Cet enseignement n'apporte que profit à l'enfant et le prépare à exercer un métier au Pays Basque où la maîtrise de la langue est demandée et appréciée partout et par tous. Un sondage organisé auprès des parents a révélé qu'une grande majorité était favorable à la mise en place de cette expérimentation dont plus de 94,5 % des parents de petite et moyenne sections. Parents et élus ont travaillé ensemble, soutenus par l'Office Public de la langue Basque et les associations Biga Bai et Ikas Bi ainsi que par les autres écoles demandant l'enseignement en langue basque jusqu'à l'accord de l'Académie. Depuis la rentrée de septembre, l'Ecole Publique propose donc un enseignement à 100% en langue basque en maternelle.

BIDEXKA BERRI BAT KANTINARAT JOAITEKO / NOUVEAU CHEMIN POUR ALLER À LA CANTINE

Sartze huntako berritasuna da ere, Ikastolako eta Eskola publikoko haurrak Arrosategiko eremutik pasatzen direla jantegira joaiteko, gisa hortan D8 bideko harat-hunat ainitzak saihestuz eta guzien segurtasuna indartuz.



Depuis la rentrée, les élèves de l'ikastola et de l'Ecole Publique se rendent à la cantine en passant par le terrain d'Arrosategia et ainsi évitent toute la circulation de la route D8 afin de leur garantir un maximum de sécurité lors des trajets école/cantine.

LABORANTXA

AGRICULTURE

- ❑ Laborantxako kalamitate gune bezala pasa da herria, udaberri huntan apirilaren 4tik 8rat izan diren hormengatik, kalteak ukan badituzue zuen mahastietan, laguntza galdeak azaroaren 9a baino lehen pausatu behar dira DDTM-an.
- ❑ **Azaroaren 23an 9:30tan** su emaiter buruzko baieztapen bilkura eginen da herriko etxean. Oroitarazten dautzuegu galdeak azaroaren 16-a aintzin egin behar direla.
- ❑ **Abenduaren 3an ostiralez arratseko 8:00tan** herriko laborantza diagnostikoaren aurkezpena eginen da Denen etxean. Gomita laborari eta herritar guzieri luzatua da.
- ❑ Le village bénéficie du statut calamité agricole pour les gelées qui ont eu lieu du 4 au 8 avril sur les vignes. Si vous avez été concernés par cet épisode, vous pouvez déposer une demande d'aide compensatoire auprès de la DDTM avant le 9 novembre.
- ❑ **Vendredi 23 novembre à 9h30:** le CLE (comité local d'écobuage) se réunit pour accorder ou non les demandes d'écobuage. Nous vous rappelons que les demandes doivent se faire avant le 16 novembre.
- ❑ **Vendredi 3 décembre à 20h00:** restitution du diagnostic agricole du village par EHLG à la salle pour tous. Tous les agriculteurs et villageois sont invités..

GEMAPI



Euskal hiriguneak 21 konpetentzia ditu beregain, GEMAPI barne. Hunen ardura da ur-guneen kudeaketa eta uholdeen prebentzioa. Horretarako du Herriko etxeak Hirigunea kontaktatu Gaharduko zubira etor zitezten. Lakako bi aldeak garbitu ditu Lagun elkarteak bai eta ere ardura gainezka den haurtzaindegi einek erreka.

La Communauté d'Agglomération Pays Basque détient 21 compétences dont la GEMAPI (Gestion des Milieux Aquatiques et Prévention des Inondations). C'est à ce titre que la commune a sollicité la CAPB pour intervenir au niveau du pont de Gahardou . L'entreprise Lagun a nettoyé les deux côtés du Laka mais aussi vers le ruisseau qui déborde souvent au niveau de la crèche.



SABAIA JOSTAGUNEA

LUDOTHÈQUE SABAIA

Sabaia jostaguneak bere atea berriz ideki ditu agorrilaren 7an ibiakoitzez. Bernadette Argainek egingen dautzue harrera gune goxo batean, asteazken eta ibiakoitz goizetan 10etatik eguerdira. Haurrak heldu batekin izanez gero lekuan berean jostatzen ahal dira.

La ludothèque Sabaia a rouvert ses portes samedi 7 août. Bernadette Argain vous accueille les mercredis et samedis matins de 10h à 12h dans un espace agréable et bien équipé. Les enfants accompagnés d'un adulte peuvent jouer sur place.

- **Joko ainitz (600 bat joko)**
- **Imitazio joko gune bat**
- **3 astetarako jokoen prestatzea**
- **Urteko kidetzea, 20€ familiaka**



- Grand choix (environ 600 jeux)
- Coins jeux d'imitation
- Prêt de jeux pour 3 semaines
- Cotisation annuelle de 20€/ famille



Urriaren 23an ibiakoitzez, egurrezko kanpoko joko batzuekin animazio bat proposatua izan da ezker pareta ondoan. Handi eta ttipiak jostatu ahal izan dira kanpoan, aro ederra lagun, Ludo64 elkarteko bi langileren gidaritzapean.

Arraberritzekoa den momentu goxo bat...

Une animation de grands jeux d'extérieur en bois a eu lieu samedi 23 octobre. Petits et grands ont pu jouer en plein air devant le mur à gauche sous la conduite de 2 ludothécaires de la Ludo64.

Moment très convivial, à renouveler...

ELIZAKO OBRAK

TRAVAUX DE L'ÉGLISE

Enpresek segitzen dute beren lanetan aintzinetik finkatu abiaduran. Eliza hetsia egonen da kanpoko harri juntatze lanaren errautsarengatik.

Ez dugu segurtamenik eguberri garaieko.

Bestalde, estrainaldia Bazko inguruan pentsatua da.

Les travaux avancent selon le planning établi au départ. Tant qu'il y a de la poussière générée à l'extérieur, il n'est pas possible d'ouvrir l'église pour les cérémonies.

Pour l'instant, nous n'en savons pas plus pour la période de Noël.

L'inauguration devrait se dérouler aux alentours de Pâques.

JENDE KONDAKETA

RECENSEMENT

Garrantzitsua da bakoitzak parte har dezan ariketa huntan zeren eta ondoko 5 urteentzat herriko etxearen diru iturriak lotuak izanen dira aterako den kopuruari.

2022ko urtarrilaren 20a eta otsailaren 19 artean iraganen da.

Bi herritar pasatuko dira lan hunen egitera eta beharrezkoak diren xehetasunak emanen dauzkiziete.

Ez dira oraindik izendatuak eta zuetatik norbait interesatua bada eta libro ere garai hortan zuen izena eman dezakezue herriko etxean.

Il est important que chacun soit recensé afin que la population soit convenablement évaluée, les ressources de la commune en dépendent pendant les 5 années qui suivent.

Il est prévu qu'il ait lieu entre le 20 janvier et le 19 février 2022.

2 agents recenseurs prendront contact avec vous pendant cette période afin de vous donner les éléments pour le réaliser.

Nous ne sommes pas actuellement en mesure de vous donner l'identité de ces 2 personnes car elles ne sont pas encore sélectionnées, aussi toute personne intéressée et disponible pendant cette période peut prendre contact auprès de la mairie.

NAHAS MAHAS

EN BREF

HERRIKO LANGILEAK

EMPLOYÉ.E.S COMMUNAUX

Ludoteka berriz idekitzeko helburuarekin, deliberatu dugu Xirristi Mirristiko Bernadette Argain enplegatzea.

Horrez gain, larrazken huntan Itolako Floriane Changelak ikastaro bat egiten du idazkaritzan Jeaninekin bi egunez astean.

Dans le but de pouvoir rouvrir la ludothèque, nous avons décidé d'employer Bernadette Argain.

Par ailleurs, cet automne, Floriane Changala accompagne Jeanine au secrétariat deux jours par semaine dans le cadre d'un stage.

WEBGUNEA

Herriko Etxearen webgunea ikusgai da: ortzaize.eus

SITE INTERNET

N'hésitez pas à consulter le site de la Mairie : ortzaize.eus

ATELIERS ATXIKI

ATXIKI TAILERRAK

Deux types d'activités sont proposés en alternance :

- un atelier mémoire animé par la psychologue Marianne Cesar
- un atelier psychomotricité animé par la psychomotricienne Aline Etcheverry.

Ils ont lieu le mardi à la Salle pour tous où trois groupes de travail sont formés, chacun pouvant accueillir jusqu'à 8 participants. Le premier atelier commence à 10.30h, le second à 14.00h et le troisième à 15.30h.

Ces ateliers sont gratuits et s'adressent aux personnes de plus de 60ans.

Toute personne intéressée par les ateliers Atxiki peut s'inscrire ou s'informer en téléphonant à Aline Etcheverry au numéro suivant : 07 85 46 07 92.

Bi tailer mota proposatuak dira aldizkatuz :

- **memorio tailerra, Marianne Cesar psikologoak animatzen duena**
- **psikomotrizitate tailerra, Aline Etcheverry psikomotrizilariak animatzen duena.**

Tailer horiek asteartetan iragaiten dira Denen etxe gelan. Hiru talde badira. Lehena, 10 terditan elkartzten da, bigarrena arratsaldeko 20retan eta azkena arratsaldeko 3 terditan. Talde bakoitzak 8 lagun bil ditzazke.

Tailer horiek urrik dira eta 60 urtetik goitiko pertsonei zuzenduak dira.

Norbaitek nahi badu tailerretan parte hartu edo/ta informazio berezirik ukan, deitzen ahal du Aline Etcheverry zenbaki huntarat : 07 85 46 07 92.